Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar zainduz Lezo

Hautaketa prozesua: Administrazio Orokorreko teknikari 2 plaza.

Ariketa praktikoa

2025-07-16

Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar zainduz Lezo

1. KASU PRAKTIKOA (12 puntu).

Lezoko Udalak, administrazio elektronikoaren ezarpenean aurrerapausoak emateko, artxibo elektronikoa ezartzeko beharra du. Horretarako, udalez gaindiko erakundeek dituzten aplikazioek bere beharrak asetzen ez dituztela iritzita, udalaren neurrira diseinatutako aplikazio informatiko bat lortu nahi du. Udalak horretarako baliabide nahikorik ez duenez, kanpo enpresa bat kontratatu nahi da. Udal zerbitzu teknikoek 60.000 euroko gehieneko gastua aurreikusi dute horretarako, BEZa gabe (BEZarekin 72.600 euro). Udalaren aurrekontuko ohiko baliabideak 10.000.000 eurokoak dira.

Alkateak txosten juridiko bat eskatu dizu kontratazio-espediente horri hasiera emateko, eta lehen bai lehen esleitu nahi duela adierazi dizu, artxibozaina jubilatzera doalako. Prestatu txosten hori, gutxienez, honakoak jasoz:

a. Kontratuaren xedea eta beharra. (0,25 puntu).
b. Kontratu-mota. (0,75 puntu).
c. Loteetan banatzeko proposamena, edo ez banatzeko arrazoiak. (0,25 puntu).
d. Kontratuaren oinarrizko aurrekontua eta balio zenbatetsita. (0,5 puntu).
e. Kontratazio-organoa. (0,25 puntu).
f. Lizitazio-prozedura egokiena eta prozeduraren ezaugarri nagusiak. (1,5 puntu).
g. Kaudimena, klasifikazioa, erregistroa. (0,75 puntu).
h. Esleipen-irizpideak (motak eta adibideak). (1,5 puntu).
i. Bermea. (0,25 puntu).
j. Espedientearen gutxieneko edukia espedientea onartu eta lizitazioa martxan jartzeko. (1,5 puntu).
k. Argitalpen betebeharrak. (0,25 puntu).
l. Eskaintzak aurkezteko epea. (0,5 puntu).

Proposamen horri, aurrekontu berdinaren barne, mantenua gehitzea proposatuko balitz, 5 urteko iraupenarekin, aurretik aipatu duzunari zertan eragingo lioke?. *(Labur eta eskematikoki erantzunda nahikoa da, eragingo den puntuak aipatu eta justifikatu, baina ez dira berriro puntu guztiak landu behar).* (2 puntu).

Kontratua formalizatuta eta enpresa lanean hasita, enpresak proposatzen du merkatuan eskuragai dagoen aplikazio bat erostea. Horrela, proposatu du kontratua aldatzea, aplikazio horren erosketa gehituz. Lortu duen aurrekontua aplikazio horretarako 5.000 eurokoa da. Posible al da kontratu aldaketa hori egitea?. (1,75 puntu).

Aipatutako edukiaz gain, **txostenaren egitura, koherentzia eta azalpenen argitasuna baloratuko dira**. Hori ez bada errespetatzen, 3 punturaino jaitsi ahalko da ariketa honen emaitza.

Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar zainduz Lezo

1. CASO PRÁCTICO (12 puntos).

El Ayuntamiento de Lezo, para avanzar en la implantación de la administración electrónica, necesita implantar el archivo electrónico. Para ello, al considerar que las aplicaciones con las que cuentan las entidades supramunicipales no cubren sus necesidades, pretende conseguir una aplicación informática diseñada a medida del ayuntamiento. Dado que el Ayuntamiento no dispone de recursos suficientes para ello, se pretende contratar una empresa externa. Los servicios técnicos municipales prevén para ello un gasto máximo de 60.000 euros, IVA excluido (72.600 euros con IVA). Los recursos ordinarios del presupuesto municipal ascienden a 10.000.000 de euros.

Desde alcaldía le solicitan un informe jurídico para la incoación de dicho expediente de contratación, indicándole su intención de adjudicarlo cuanto antes, ya que la persona que se encarga del archivo va a jubilarse próximamente. Elabore el citado informe, abordando, al menos, los siguientes puntos:

a. Objeto y necesidad del contrato. (0,25 puntos).
b. Tipo de contrato. (0,75 puntos).
c. Propuesta de división en lotes o causas de no división. (0,25 puntos).
d. Presupuesto base y valor estimado del contrato. (0,5 puntos).
e. Órgano de contratación. (0,25 puntos).
f. Procedimiento de licitación más adecuado y características principales del procedimiento. (1,5 puntos).
g. Solvencia, clasificación, registro. (0,75 puntos).
h. Criterios de adjudicación (tipos y ejemplos). (1,5 puntos).
i. Garantía. (0,25 puntos).
j. Contenido mínimo del expediente para su aprobación y puesta en marcha. (1,5 puntos).
k. Obligaciones de publicación. (0,25 puntos).
l. Plazo de presentación de ofertas. (0,5 puntos).

Si se propusiera añadir el mantenimiento de la aplicación a esa propuesta, dentro del mismo presupuesto, con una duración de 5 años, ¿en qué afectaría a lo que ha mencionado anteriormente?. *(Basta con responder breve y esquemáticamente, mencionar y justificar los puntos a los que va a afectar, pero no hay que volver a desarrollar todos los puntos)*. (2 puntos).

Formalizado el contrato e iniciada el mismo, la empresa propone la compra de una aplicación disponible en el mercado. Así, propone modificar el contrato añadiendo la compra de esta nueva aplicación. El presupuesto que ha presentado para esta compra es de 5.000 euros. ¿Es posible esta modificación contractual?. (1,75 puntos).

Además del contenido mencionado, **se valorará la estructura, coherencia y claridad expositiva del informe**. Si esto no se respeta, se podrá bajar hasta 3 puntos el resultado de este ejercicio.

2. KASU PRAKTIKOA (8 puntu).

Lezoko Udalak, lanpostuak eta eman behar dituen zerbitzuak aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako departamentuan behar estrukturalak dituela ondorioztatu du, gizarte langileekin hitzorduak egiteko itxaronaldia hiru hilabetetik gorakoa delako eta gizarte langileen bi lanpostu baino ez dituztelako. Dotazio berri bat sortu nahi da, eta lanpostu horri lotutako plaza behin betiko bete.

Bestalde, lan-kontratu finkoa duen brigadako langile bat aldi baterako ezintasun-egoeran dago duela hilabetetik, eta zerbitzuaren arduradunak idatziz eskatu du hura ordezteko.

Azkenik, administrari laguntzaile lanpostu bat amortizatu nahi da, gaur egun esleitutako funtzioak oso urriak direlako eta lanpostuen zerrendan dauden administrari lanpostuek beren gain har ditzaketelako.

Erantzun galdera hauei:

1.- Eskematikoki (garatu gabe) deskribatu gizarte-langilearen lanpostu berria eta plantillan dagokion plaza sortzeko eman beharreko urratsak. (3 puntu).

2.- Gizarte-langilearen lanpostuari dagokion plaza behin betiko betetzeko bete behar dituzten prozedurak, irizpideak eta printzipioak deskribatu. (3 puntu).

3.- Administrari laguntzaile lanpostua bitarteko funtzionario batek betetzen badu, azaldu ezazu lanpostua amortizatzearen ondorioak. (0,5 puntu).

Karrerako funtzionario batek beteko balu, zein egoeratan geratuko litzateke lanpostuaren titularra?. (0,5 puntu).

4.- Arrazoitu zer lan-kontratu mota egin behar den brigadako langilea ordezkatzeko eta nola formalizatu behar den. (0,5 puntu).

5.- Lan-kontratazioaren beharra peoi batzuen oporren ordezkapenagatik gertatzen bada, eta horietako batzuk gainjarri egiten badira, lan-kontratazio mota bera egin beharko litzateke?. Adierazi nola formalizatu behar den eta zenbat irauten duen. (0,5 puntu).

2. CASO PRÁCTICO (8 puntos).

El Ayuntamiento de Lezo, tras realizar un análisis de los puestos de trabajo y de los servicios que debe prestar, ha concluido que tiene necesidades estructurales en el departamento de Servicios Sociales, dado que el tiempo de espera para citas con los/as trabajadores/as sociales supera los tres meses y solo cuentan con dos puestos de trabajadores/as sociales. Quiere crearse una nueva dotación y cubrirse la plaza asociada a dicho puesto de trabajo de manera permanente.

Por otro lado, una operaria de la brigada con contrato laboral fijo se encuentra en situación de incapacidad temporal desde hace un mes, y la responsable del servicio ha solicitado por escrito que se proceda a su sustitución.

Finalmente, se quiere amortizar un puesto de auxiliar administrativo/a, debido a que las funciones asignadas actualmente son residuales y pueden ser asumidas por los puestos de administrativo/a existentes en la relación de puestos de trabajo.

Responde a las siguientes cuestiones:

1.- Describe esquemáticamente (sin desarrollar) los pasos a dar para la creación del nuevo puesto de trabajador/a social y de la plaza correspondiente en la plantilla. (3 puntos).

2.- Describe el o los procedimientos, y criterios y principios que han de respetar para la cobertura definitiva de la plaza correspondiente al puesto de trabajador/a social. (3 puntos).

3.- En el caso de que el puesto de auxiliar administrativo/a estuviera ocupado por un/a funcionario/a interino/a, explica las consecuencias de la amortización del puesto de trabajo. (0,5 puntos).

Si estuviera ocupado por un/a funcionario/a de carrera, ¿en qué situación quedaría la persona titular del puesto?. (0,5 puntos).

4.- Razona qué tipo de contratación laboral debe realizarse para sustituir a la operaria de brigada y cómo debe formalizarse. (0,5 puntos).

5.- En el caso de que la necesidad de contratación laboral se deba a la sustitución de vacaciones de varios/as peones/as algunos/as de los cuales se solapan, ¿procedería el mismo tipo de contratación laboral?. Señala cómo debe formalizarse y su duración. (0,5 puntos).

3. KASU PRAKTIKOA: (5 puntu).

Aldez aurretik iragarrita zegoen haize-denborale baten ondorioz, 2025ko otsailaren 25ean, A kalean Udalak berak egiten duen zabor bilketa zerbitzuko edukiontzi batek aparkatuta zeuden 2 ibilgailu markatu eta hondatu ditu: biak ere garraio-lanetan aritzen den Bizkor SL enpresarenak.

2025ko apirilaren 30ean, X andreak, Bizkor SL enpresaren izenean eta ordezkari lez, 2 ibilgailuetan izandako kalteengatik Lezoko Udalari ondare-erantzukizuna eskatzeko erreklamazioa aurkezten du udalaren aurrez aurreko erregistroan. Zera alegatzen du:

a) Zabor edukiontziak lotu gabe zeudela, eta bere tokitik mugitu zirela, haize bolada bortitzak lagunduta. Zabor edukiontziak eta zabor bilketa zaintzea eta egoera onean edukitzea udalaren ardura dela eta, beraz, udalari dagokiola kalteei aurre egitea.
b) Mugitutako edukiontziak bere enpresa jarduerarako erabiltzen dituen 2 ibilgailuak (guztiak) kaltetu zituela; eta jada kontratatuta zituen hainbat zerbitzu galtzeaz gain, beste hainbesteri uko egin beharrean gertatu dela ibilgailu konpondu arte.

Alegazio horiek oinarri hartuta, kalte-ordain gisa honako hauek eskatzen ditu:

a) Ibilgailuetan izandako kalteengatik: 54.000,00 euro.
b) Jarduera ekonomikoan galdutako lan edo zerbitzuengatik (2 egun): 2.000,00 euro.
c) Jarduera ekonomikoan egiteari utzi behar izan dion lan edo zerbitzuengatik (6 egun): 6.000 euro.

Bere eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkezten ditu:

a) Aseguru-etxeak 2 ibilgailuak izandako kalteen agiria, ateak eta kristalak hondatu dituenez konpondu bitarte ezin dira erabili.
b) 2 ibilgailuen konpontzeko aurrekontua.
c) Bere jarduera ekonomikoaren 2025eko lehen hiruhileko fakturazioa.
d) Gertatutakoaren argazkiak.
e) Gertatutakoaren inguruan bertaratutako udaltzainak egindako txostena.

Gertaera hauek frogatutzat ematen dira:

a) Edukinontziak mugitutako egunean 90 km/orduko abiadurako haize bolada jarraituak izan zirela.
b) Egun hori baino aste bat lehenago, urtero legez, kale horretako edukiontzien egoeraren errepasoa egiten aritu zirela udaleko langileak (Kale garbiketa eta Hondakinen bilketa Zerbitzukoak). Lan horien arduradun teknikoaren txostenean (2025eko otsailaren 20koan) zera dago jasota:

    1.- Edukiontziak lotu/frenatu/aseguratu beharra zegoela, mugitzeko arrisku nabaria zutelako.

    2.- Hori egin bitarte, edukiontzi horien inguruan zegozkion segurtasun- eta babes neurriak hartu behar zirela (hesiak eta seinaleak).

c) Auzipeko edukiontzien inguruan ez zegoela inolako hesi edo seinalerik, aparkatzea galarazteko (udaltzainaren txostenean jasotakoaren arabera).

2025eko otsailaren 25ean jasotakoen inguruan udaleko Kale garbiketa eta Hondakinen bilketa Zerbitzukoak 2025eko martxoaren 18an egindako txostenean, edukiontzi zehatz horri buruz zera esaten da: zerbitzuburuak agindu argia eta zehatza eman ziola Y langileari, 2025eko otsailaren 20an bertan edukiontzien inguruan hesiak eta seinaleak jartzeko eta otsailaren 22an edukiontziak lotzeko; agindutakoa zergatik ez zuen bete galdetutakoan, ez diola erantzun.

Erreklamazio hau dela eta hasieratik ebazpeneraino egin beharreko izapideak azaldu, ondorengo alderdiei erantzunez, gutxienez. Erantzunak arrazoitu behar dituzu eta arau oinarriak eman. (5 puntu).

1.- Aplikatu beharreko araudia zein den. (puntu 1).

2.- Erreklamazioa zuzen aurkeztu den. (puntu 1).

3.- Lezoko Udalaren ondare-erantzukizuna aitortzeko baldintzak betetzen diren. (puntu 1).

4.- Jarraitu beharreko prozeduran burutu beharreko izapideak zeintzuk diren. (puntu 1).

5.- Erreklamazioa ebazteko proposamena zein den: ebazpenaren edukia. (puntu 1).

3. CASO PRÁCTICO (5 puntos).

Como consecuencia de un temporal de viento predicho con antelación, el 25 de febrero de 2025, un contenedor del servicio de recogida de basuras que realiza el ayuntamiento, ubicado en la calle A ha marcado y dañado 2 vehículos estacionados, ambos propiedad de la empresa Bizkor S.L., dedicada al transporte.

Con fecha 30 de abril de 2025, doña X, en nombre y representación de la empresa Bizkor S.L., presenta en el registro presencial municipal reclamación de responsabilidad patrimonial al Ayuntamiento de Lezo por los daños sufridos en los 2 vehículos. Alega lo siguiente:

a) Que los contenedores de basura no estaban sujetos y se movieron de su lugar, favorecidos por el fuerte viento. Que vigilar y mantener en buen estado los contenedores de basura y la recogida de basuras es responsabilidad municipal y, por tanto, corresponde al ayuntamiento hacer frente a los daños causados.
b) Que el contenedor desplazado causó desperfectos en los 2 vehículos (todos) que utiliza para su actividad empresarial, y que además de la pérdida de algunos servicios que ya tenía contratados, ha tenido que renunciar a otros tantos hasta su reparación.

En base a estas alegaciones solicita como indemnización:

a) Por daños en los vehículos: 54.000,00 euros.
b) Por trabajos o servicios perdidos en su actividad económica (2 días): 2.000,00 euros.
c) Por trabajos o servicios que ha tenido que dejar de realizar en su actividad económica (6 días): 6.000,00 euros.

Acompaña a su solicitud la siguiente documentación:

a) Parte de la compañía aseguradora sobre los daños sufridos por ambos vehículos, en el que se indica que, como consecuencia del deterioro de puertas y cristales, no podrán ser utilizados hasta su reparación.
b) Presupuesto de reparación de los 2 vehículos.
c) Facturación del primer trimestre de 2025, correspondiente a su actividad económica.
d) Fotografías del suceso.
e) Informe del agente de la Policía Local desplazado al lugar de los hechos.

Se declaran probados los siguientes hechos:

a) Que el día del desplazamiento de los contenedores se produjeron rachas continuas de viento de 90 km/h.
b) Que una semana antes de dicha fecha, como todos los años, el personal del Servicio de Limpieza Viaria y Recogida de Residuos del Ayuntamiento estuvo realizando un repaso de la situación de los contenedores en dicha calle. En el informe de la persona responsable técnica de esos trabajos (20 de febrero de 2025) se recoge lo siguiente:

1.- La necesidad de sujetar/frenar/asegurar los contenedores por su evidente riesgo de desplazamiento.

2.- Mientras tanto, la necesidad de adoptar las medidas de seguridad y protección (vallas y señalización) correspondientes alrededor de dichos contenedores.

c) La ausencia de vallas o señales que impidieran el estacionamiento en las inmediaciones de los contenedores objeto del litigio (según consta en el informe de la policía local).

En el informe emitido el 18 de marzo de 2025 por el Servicio de Limpieza Viaria y Recogida de Residuos del Ayuntamiento en relación a los hechos ocurridos el 25 de febrero de 2025, se señala que en relación a este contenedor concreto, el Jefe de Servicio dio una orden clara y detallada al trabajador Y el 20 de febrero de 2025, para que colocara vallas y señales en torno a los contenedores y el 22 de febrero, para que los contenedores se sujetaran, y que al preguntarle por qué no cumplió lo ordenado, no le contestó.

Expón los trámites a realizar desde el inicio de la presente reclamación hasta su resolución, respondiendo al menos a las siguientes cuestiones. Tienes que motivar las respuestas e indicar las normas de aplicación. (5 puntos).

1.- Cuál es la normativa aplicable. (1 punto).

2.- Si la reclamación se ha presentado de forma correcta. (1 punto).

3.- Si se cumplen los requisitos para el reconocimiento de la responsabilidad patrimonial del Ayuntamiento de Lezo. (1 punto).

4.- Cuáles son los trámites a realizar en el procedimiento a seguir. (1 punto).

5.- Cuál es la propuesta de resolución de la reclamación: contenido de la resolución. (1 punto).